



2007-08ko AUTONOMIKO MAILAKO LEKUALDATZE- LEHIAKETAK

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak **eskaera Internet-en bidez altan emateko** aukera eskaintzen die lekualdatze-lehiaketa horietan parte hartuko dutenei. Horretaz gain, paperezko era tradizionala edo web orrian inprimatu eta bete ahal den eskaera bati lotzea ere erabili ahal izango dira.

Sistema horrek paperezko tradizionalarekin dituen abantailak (eskaerak Ordezkaritzetan bildu behar ez izatea, betetzean akats gutxiago egotea,...etab.) kontuan hartuta, Sail honek ahalik eta publizitaterik handiena eman nahi dio, lehiatzaileek errazago egin ditzaten lehiaketa horietan parte hartzeko tramiteak.

ESKAERA ALTAN EMATEKO PROZESUA

ALDEZ AURREKO URRATSAK

Lekualdatze-lehiaketen deialdiek ezarritakoaren arabera, posta pertsonalizatuaren klabeak irakasle.net.en eduki behar dira deialdiak EHAAan argitara ematen diren datan. Klabe horiek oraindik ez dituztenek Internet-en orri honetan ematen diren argibideen arabera eskatu ahal dituzte: www.irakasle.net altan emateko argibideak.

Posta elektronikoaren klabeak dituzten arren arazoren bat dutenek posta elektronikoaren helbide honetan jakinarazi beharko dute: hezkuntza@irakasle.net



Edonola ere, ezinbestekoa da izena, bi abizenak eta NAN ematea.

www.irakasle.net orriaren bidez eta klabe pertsonala sartu ondoren, **irakaslegunean** (irakasleak hezkuntza-administrazioarekin harremanak izan eta komunikatzeko espazioa) zaude. Orri honetan azpimarratutako aukeren artean **lekualdatze-lehiaketa** agertzen da, klik egin beharko duzuna.

ESKAERA

Ondoren, aplikazioak aurkeztuko dizu/dizkizu kidea zaren eta, beraz, parte hartu ahal duzun irakaskuntza-kidegoa/kidegoak. Behar den irakaskuntza-kidegoaren aukeran klik egin ezazu.

Arrazoiren batengatik irakaskuntza-kidegoa edo kidegoak sortzen ez bazaizkizu eta parte hartu ahal duzun kidego guztiak agertzen ez badira, eskaera paper-euskarrian bete beharko duzu.

Ondoren, **ALTA**n klik egin behar duzu. Sistemak eskatzailearen izen-abizenak, NAN eta parte hartzen duen kidegoa kargatuko ditu. Hemendik aurrera bete beharko ditu lekualdatze-lehiaketarako behar diren datuak agertzen diren formularioak. Badira datuak (espezialitateak, lurraldeak, ikastetxeak, hizkuntz eskakizunak...) selekzionatzeko goitibeherak dituzten atalak.

Eskaera bete ondoren, inprimakiaren azken zatian **BALIDAZIOA** edo **ONIRITZIA** eskatzen da, emandako datuak eskaera formal eta baliagarri bihur daitezen. **Inportantea da, sartutako datuekin ados egonez gero, aukera hau balidatzea.** Horrela egin ezean, ez da zure alta formalizatuko eta ezin izango da zure eskaera inprimatu.



Eskaeran aldaketak egin nahi izanez gero eta, **betiere, itxi aurretik**, badago nahi duzun atala aldatzeko aukera.

Eskaera balidatu ondoren, programak emango dizu eskaera inprimatzeko aukera, errezibo batekin batera, tokian tokiko Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzan aurkeztu beharko duzun dokumentazioa adieraz dezazun.

Edozein arrazoiengatik ezin baduzu eskaera bide honetatik altan eman, betetzeko beste bi bide daudela gogorarazten dizugu:

- **Eskaera** Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetan izango duzun **paperean** jasotzea.
- Ondorengo Internet-en helbidean eskura izango duzun eskaera inprimatzea:

www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>[langileak](#)>[langile-hornikuntza](#)>[irakasleak](#)>[lekualdatze-lehiaketak](#)

Bi kasuetan, eskaerak tokian tokiko Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzara sartu beharko du.

SALBUESPENAK

Izaera singularreko lanpostuen lekualdatze-lehiaketan parte hartuz gero, eskaera paperezko euskarrian bete beharko dute.



ZALANTZAK

Eskaera betetzeari lotutako edozein gai argitzeko, jarri beharko duzue Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzekin harremanetan, ondorengo telefonoetan:

Araba: 945 017256 / 945 017252 (L.H.)
945 017210 / 945 017258 (I.E.)

Bizkaia: 94 4031094 / 94 4031095 / 94 4031096

Gipuzkoa: 943 022867 (L.H.)
943 022863 (I.E.)
943 022850 (Informazio orokorra)

Eskaerak aurkezteko **epea**, deialdian adierazitako edozein aukera erabiliz, baita merezimenduak entregatzeko ere,-hauek ere Lurralde Ordezkaritzetan entregatu beharko dira-, hau izango da:

- **Maisu-Maistren** lekualdatze-lehiaketa: **2007ko abenduaren 1etik 20ra bitartean**, biak barne.
- **Ertainetako Irakasleen** lekualdatze-lehiaketa: **2007ko azaroaren 28tik abenduaren 17ra bitartean**, biak barne.
- **Izaera singularreko lanpostuen** lekualdatze-lehiaketa: **2008ko urtarrilean**.